

GIPUZKOATARRAK PLAZA AGIRIKOETAN

JOKATU OI DITUZTEN PILLOTA-PARTIDAK



Gizon jakinti askok aitortzen dute garbiro, euskaldunak sortua dala pillota, eta pillotako jokua; euskaldunak dirala pillotako lanbidean beste guztien buru ta nagusi; eta gipuzkoatarrak jatorriz direala pillotari gain gañekoak, eta jostallu gozarotsu onetara guztiz eresi andia dutenak.

.....

Egiazki ikusgarria da chit pillotariak plazan oi darabiltzen pizkortasun, azkardade, eta arintasuna. Probinzia onetako jaiotarrak jai guztietan jostaldiatzen dira pillotan, andizki eta apaiz-etarañokoak langilleekin batean. Erriak erriai, probinziak probinziari, eta azkenik frantsesari ere. gipuzkoatarrak jokatu izan diezate pillotan dirutza andiak asko aldiz. Ez ordea ustekabezean alkargana biribillaturik, baizikan gizon prestu gisa, aldearez bata besteari gaztigatu, eta bide erdira irtenik adiskidetasun andian erabakitzen dituztela garbiro, zenbat diru jokatu, zein egunetan, nongo plazan, nolala pillotakiñ, zenbat jokutara, eta lanbide oni dagozkion argibide osterontzeko guztiak.

Modu onetan egindako pillotako-partidu ondra andikoetan, ikusi izan dira onza urreak millaka jokatzen.

Ernaniko plazan lau nafartarri, beste lau gipuzkoatarrak jokatutako pillota-partidu babean, ikusi izan ziran oe osoak beren janziakin, eta

kosna ta kolchoi bakarretarañokoak ere, bertako jendeak erritarren alde balio jakiñaren truke ifinirik pillota jokuaren aldameneko zumar gañetan ichekita zinzilika zeudela, partidua bukatu arte guztian.

Pillotako partidu andi au jokatu izan zatekean milla zazpi eun eta ogei-garren urte inguruan. Gertatu omen zan gipuzkoatarrak irabaztea; bañan chit estutik eta etsi ezkerokoa. Gipuzkoatarrak sei joku eta nafartarrak amar jarri omen ziran amaikarako. Oek partidua irabazitatz biraldu omen zuten mandataria beren errietarontz. Bañan erribera deitzen zitzaion Oyarzungo galai gazteren bat arras mindurik, asi omen zan sakatzen pillota andia eta Jesus-garrengo ziplatu omen zien nafarrai partidua.

Denbora aetan eta geroztik ere oitura izandu da Gipuzkoan, partidu andi bat irabazitakoan itzneurtuak ifintea, beretan adierazten dirala oso ta garbi, pillotariakiñ plazan igarotako gertakari guztiak, ondorengoak ere gogoan izan zitzen, aurreragokoak egindako azaña andiak, oraiñ zer-nai gauzaren barriak paper moldizkidatueta zabaltzen diraden bezala.

.....

Izendatu dedan pillota-partidu Ernanikoa irabazitakoan, gipuzkoatarrak ifini izan zituzten bersoetako iru ezarriko ditut emen, probinzia onetako edozein atsok gaurko egunean ere kantatzen dituenak, eun ta ainbeste urteren buruan, atzo ateratako berri berriak balirake bezalaisen. Berso oek dira iruna puntukoak, eta beren okasta edo tonu berezitu ederrean, chit egoki datozenak.

Amar joku ta sei zeudenean
 Erriberaren kopeta,
 Bazirudien bazekarrela
 Elurrarekin tormenta;
 Elizaraño sakatzen zeban
 Zortzi onzako pillota.

Baztandarrak itzak der
 Malmotea kolkoan,
 Erraz irabazi uste zuten
 Partida galdutakoan,

**Negarra mardul egiten zuten
Ernanin eliz-ondoan.**

**Astigarragan mutil chiki bat
Probestuaren semea
¿Non billatzen da errestorako
Bera dan baino ohea?
¡Ikaraturik biraldu bait-du
Nafarroako jendea!**

IZTUETA.

